



## El preso gravemente enfermo Ibon Iparragirre ha sido agredido por 3 presos en Alcalá-Meco

---

IPARRA GALDU BAIK :: 06/02/2017

[Eusk/Cast] Están vulnerando los derechos más fundamentales y creemos que parar esto corresponde tanto a los gobiernos como a toda la sociedad.

**[Euskara]**

### **IBON IPARRAGIRRE BURGOA, LARRIKI GAIKO DAGOEN EUSKAL PRESOK, BESTE ERASO BAT JASAN DU ALCALA-MECON.**

Larunbat goizean Ondarruko bi lagunek kristal bidezko bisita izan zuten Ibonekin. Ondarruko preso, ahoko hagin protesia eskuetan zuela agertu zen bisitara. Aurreko egunean, ostiralean, Lehen Moduluan dauden hiru presok jipoi eman zioten eta ahoko protesia apurtu zioten.

Ibon bere ziegan zegoela, hiru preso horiek barrura sartu ziren. Bik, bizkarraldetik besoak inmovilizatu zizkieten eta beste batek ukabilkadak eman zizkion aurpegian. Ziegan zituen hainbat objektu pertsonal lapurtu zizkieten, tartean telefonoz deitzeko erabiltzen den txartela. Aurpegian jasotako ukabilkaden ondorioz haginetauko protesia hautsi zioten.

Duela hilabete batzuk, Ibon Erizaintza Modulura eraman zuten eta han beste jipoi bat jasan zuen, kasu hortan, funtzionarioen eskutik. Duela bi aste, Erizaintza Modulutik atera eta egun dagoen Lehen Modulura eraman zuten, zeinetan, giro oso gatazkatsua dagoen. Kartzelako terapeuta baten hitzetan, Ibonek duen gaixotasun larri, sendaezin eta itzulezina eta bere ondorioz dituen beste patologiak kontutan hartuta, Lehen Modulua ez da modulurik egokiena presoarentzat.

Ibonek HIESA du C estadioan, defentsak oso baxu ditu, burmuinean orban bat dauka, zeinak ikusmenaren nerbioa kaltetzen dion eta epilepsia atakeak eduki izan ditu. Hala ere, Jose Luis Castro Antonio, Entzutegi Nazionaleko Espetxe Zaintzako epaileak Ibonen abokatuek, larriki gaixo dagoen Ondarruko preso espetxealdi arinduko erreximenean ipintzeko eskaera guztiak atzera bota ditu.

Iparra Galdu Baik, Ibonen etxeratzearen aldeko herri plataformatik, Ibonen muturreko egoera batean dagoela irmoki salatu nahi dugu. Bere oinarrizko giza eskubideak uneoro urratuak izaten ari dira.

Iboni eta bere senide ta lagunei, plataformatik, une gogor hauetan gure elkartasunik beroena adierazi nahi diegu eta, Ibon eta larriki dauden gainontzeko preso berehalako etxeratzearen alde lanean jarraitzeko konpromisua berresten dugu ta hurrengo egunotan afera honen inguruan mobilizazioak egongo direla iragartzen dugu.

Oinarrizko giza eskubideak urratzen ari dira eta hori eragozteko agintariei ezezik herritar guztioi ere badagokigu. Horregatik, eremu ezberdinetatik egon daitezken mobilizazio

deialdiei adi egoteko eskaera egiten dugu Iparra Galdu Baik plataformatik.

Ondarrun, 2017ko Otsailak 5.

---

## [Castellano]

### **El preso gravemente enfermo bon Iparragirre ha sido agredido por 3 presos en la carcel de Alcalá-Meco**

El sábado a la mañana, dos amig@s de Ibon fueron a realizar la visita a través del cristal que habían reservado. Ibon apareció a la cita portando en las manos su prótesis dental. El día anterior, viernes, tres presos que se encuentran en el mismo módulo (Módulo Primero) le propinaron una paliza en su celda, debido a la cual le rompieron la dentadura postiza.

Según explicó Ibon, estos tres presos entraron en su celda y dos de ellos le inmovilizaron los brazos por la espalda y el tercero le propinó diversos puñetazos en la cara. Además de romperle la dentadura con los golpes, le sustraeron varios objetos personales de su celda, entre ellos la tarjeta para realizar las llamadas telefónicas.

Hace unos meses le trasladaron al Módulo de Enfermería, donde también fue objeto de una paliza por parte de varios funcionarios. Hace dos semanas, el preso de Ondarroa fue sacado del Módulo de Enfermería y trasladado al Módulo Primero. Según reconoció un terapeuta del propio centro penitenciario, teniendo en cuenta el grave estado de salud del preso, el Módulo Primero no es el sitio más apropiado para Ibon.

El preso de Ondarroa, padece SIDA en estadio C y el número de sus defensas es muy bajo. Además tiene una lesión cerebral que le afecta al nervio óptico, dificultándole de una forma considerable la visión. También ha padecido ataques epilépticos. A pesar de ello, el juez de Vigilancia Penitenciaria de la Audiencia Nacional, José Luis Castro Antonio, ha denegado todas las solicitudes de prisión atenuada cursadas por l@s abogad@s de Ibon.

Desde la Plataforma Iparra Galdu Baik, denunciaremos firmemente las vulneraciones de derechos humanos constantes que está sufriendo nuestro vecino de Ondarroa. Se encuentra en un ambiente de hostilidad constante y en situaciones extremas que dañan su estado de salud.

Queremos mostrar, en estos duros momentos, toda nuestra solidaridad a Ibon y a todos sus familiares y amig@s y a su vez nos reafirmamos en el compromiso de seguir trabajando para traer a casa a Ibon y tod@s l@s pres@s gravemente enferm@s. Los próximos días habrá iniciativas en este sentido.

Están vulnerando los derechos más fundamentales y creemos que parar esto corresponde tanto a los gobiernos como a toda la sociedad. Por ello, solicitamos a tod@s estar atent@s a todas las movilizaciones que se organicen a favor de la excarcelación de l@s pres@s gravemente enferm@s.

En ondarroa a 5 de Febrero del 2017

---

<https://eh.lahaine.org/el-presos-gravemente-enfermos-bon>